

zitun = zutzin
gaitezke = gaiteketzi.

Horra ene eritzia, nehork jarrai

nahi baleza, nik bertze ainbertze
eginen ezpadut ere.

Donosti'an, 1961-IV-6

VILLASANTE (Aita Luis): «*Nere izena zan Plorentxi*». *Angeles Sorazu'ren bizitza*. Itxaropena argitaldaria. Zarauz'en, 1961.

Aita Villasante langille porrokatuak eman digu herriro ere beste frutu eder bat: Ama Sorazu'ren bizitza. Gaur-egun nekez aurkituko genuen Euskalerrian —mundu osoan ere esan dezakedala uste dut— berak artu duen lan au burutzeko gizon ego-kiago ta prestuagorik. Sor Anjeles'en bizitza ta mistikaz, berak eman baidigu gaur-
daño egin den istudiorik osoena. (Ikus: *La Sierva de Dios M. Angeles Sorazu. Estudio Místico de su vida*). Bi tomotan.

Esanetan labur ta egiteetan luze omen da euskalduna ta orixe gertatzen ari zaigu nolabait Ama Sorazu'rekin. Teresa, Gurutzearen Joan ta gaiñerako mistiku gaillenen pareko dela esan digute, kanpokoek esan ere, ta aren senideok ez dugu oraindik ezagutzen gere sukaldean. Utsune barkagaitz au betetzera edo geiagoren egarria piztera datorkigu liburuxka au. Euskalduna ez omen da mistikarako jaioa (au ere esan da), baiña erregla denak dute beren salbua nunbait... Ola dio Ama Anjeles'en bizitzak.

Liburua, ez zitekean bestela izan, Sorazu'ren barne bizitzak betetzen du geienik. Euskal-birjin onek autobiografia sakon ta paregabe bat utzi zigun eta bertatik jaso ditu Aita Villasante'k atal berezi ta jakingarrienak, aren espiritu-igoera maillaka-maillaka ematen zaigula. Liburu egokia auxe gure euskal-sukaldeetan irakurtzeko, Euskalerrria'k bere alaba baten bikaintasuna ikus dezan ta, Jainkoa lagun, leenbai-
leen Bernini'ren aldarean argiz inguraturik munduari erakus dezaion.

Iturriotz